

"GUNE FUNDAZIOAREN" ESTATUTUAK		ESTATUTOS DE "GUNE FUNDAZIOA"	
I.TITULUA.	-	TITULO	I.- DISPOSICIONES
OROKORRAK	XEDAPEN	GENERALES	
1.artikulua. <u>Izena.</u>		Artículo 1. <u>Denominación.</u>	
1.-"GUNE Fundazioa" bere ondarea interes orokorreko helburuetara lotuta modu iraunkorrean duen irabazi-asmorik gabeko erakundea da.		1.-"GUNE Fundazioa", es una organización constituida sin ánimo de lucro que tiene afectado de modo duradero su patrimonio a la realización de fines de interés general.	
2.-"GUNE Fundazioa" bere fundatzaileen borondatearen eta estatutu hauen arabera arautzen da, eta, betiere, ekainaren 2ko 9/2016 Legearen eta hura garatzen duten erregelamendu bidezko xedapenen eta indarrean dauden gainerako arauen arabera.		2.-"GUNE Fundazioa" se rige por la voluntad de las personas fundadoras, por los presentes estatutos, y en todo caso por la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco, las disposiciones reglamentarias de desarrollo y demás normativa vigente.	
3.-"GUNE Fundazioa"ren iraupena mugagabea da.		3.-"GUNE Fundazioa" se constituye por tiempo indefinido.	
2.artikulua. <u>Araubidea, gaitasuna eta nortasun juridikoa.</u>		Artículo 2. <u>Régimen jurídico, capacidad y personalidad jurídica.</u>	
1.-"GUNE Fundazioa"k nortasun juridiko propioa eta independentea du, eraketa-eskritura Fundazioen Erregistroan inskribatzen denetik aurrera. Halaber, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun erabatekoa izango du, muga hauekin soilik: sortzaileek beren borondatez fundazioa osatzen duten ekitaldian adierazitakoak, estatutu hauetan ezarritakoak, eta, betiere, aplikatzekoak diren lege xedapenetan eta bereziki ekainaren 2ko 9/2016 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoan, jasotakoak.		1.-"GUNE Fundazioa" tiene personalidad jurídica propia e independiente desde la inscripción de la escritura de constitución en el Registro de Fundaciones, y dispondrá de plena capacidad jurídica y de obrar, sin otras limitaciones que las establecidas en la manifestación de voluntad de las personas fundadoras en el acto fundacional, en los presentes estatutos y, en todo caso, en las disposiciones legales que le sean de aplicación, en particular la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco.	

2.-Horrenbestez, eta Babesletzari egin beharreko komunikazioak eragotzi gabe, Fundazioak jarduteko erabateko gaitasuna izango du bere helburuak betetzeko, Kode Zibilaren 38. artikuluan ezarritakoaren arabera. Fundazioak ondoren azaltzen den guztia egin ahalko du:

a)-Mota guztietako jarduera ekonomikoak **garatu**, elkartearen helburuak lortze aldera edo helburuak lortzeko baliabideak batze aldera.

b)-Mota guztietako ondasunak eta eskubideak **bereganatu eta besterendu**, edozein tituluren bidez, eta mota guztietako ekintzak, negozioak eta kontratuak **egin**.

c)-Edozein motatako akzioak **baliatu**, bere estatutuen eta legeen arabera.

2.-En consecuencia, y sin perjuicio de las pertinentes comunicaciones al Protectorado, la Fundación tendrá plena capacidad de obrar en el cumplimiento de sus fines, conforme a lo previsto en el artículo 38 del Código Civil. La Fundación podrá:

a)-**Desarrollar** actividades económicas, de todo tipo, para realizar sus fines o allegar recursos con ese objeto.

b)-**Adquirir y enajenar** toda clase de bienes y derechos, por cualquier título, y **celebrar** todo tipo de actos, negocios y contratos.

c)-**Ejercitar** toda clase de acciones, conforme a sus estatutos y a las leyes.

3.artikulua. Fundazioaren helburuak.

1.-Hauek dira "GUNE Fundazioa"k lortu nahi dituen interes orokorreko helburuak:

Gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen normalizazioa eta gizarteratze, hezkuntza eta lan inklusioa **sustatzea**, heziketa ibilbideak edo enplegua lortzeko eta mantentzeko edozein arrazoiengatik zailtasunak agertzen duten pertsonen:

- o Formazio edota lanbide kualifikazio beharra edo nahiako pertsonak.
- o Dibertsitate funtzionala duten pertsonak: desgatasuna, mugako adimena, gaixotasun mentala, apoioa beharrekoak.

Artículo 3. Fines fundacionales.

1.-Los fines de interés general que persigue "GUNE Fundazioa" son:

Potenciar la normalización e inclusión social, educativa y laboral de personas en situación o riesgo de exclusión social, frágiles o vulnerables, con menos oportunidades en el acceso y mantenimiento tanto de itinerarios formativos como del empleo, por cualquier razón:

- o Personas con necesidad o voluntad de formación y/o cualificación profesional.
- o Personas con diversidad funcional: discapacidad, inteligencia límite, trastorno mental, necesidad de apoyos.

Enplegarritasuna aztertuz eta hobetuz, banakako gizarte- eta lan-orientazioa emanez eta enplegura bideratutako hezkuntza eta lanbide-heziketa emanez.

Mediante el estudio y mejora de su empleabilidad, la orientación socio-laboral individualizada y la educación y formación profesional orientada hacia el empleo.

2.-Helburu horiek lortze aldea, "GUNE Fundazioak" ekintza eta jarduera hauek egin ahalko ditu:

2.-Para su consecución,"GUNE Fundazioa" podrá llevar a cabo las siguientes acciones y actividades:

a)-5.artikuluaren definitutako kolektiboaren inguruko erakunde eta administrazio publiko nahiz pribatu guztiekin **lankidetzan** aktiboan eta **sare-lanean** aritzea.

a)-**Colaboración activa y trabajo en red** con todas aquellas entidades y administraciones públicas y/o privadas periféricas al colectivo definido en el artículo 5.

b)-Pertsona bakoitzari egokitutako prestakuntza eta hezkuntza ibilbide berritzaileak **garatzea**, gaitasun soziopertsonalak eta teknikoprofesionalak garatzen laguntzea ziurtatuz, pertsonak ikaskuntzaren protagonistak izan daitezen.

b)-**Desarrollo** de Itinerarios formativos y educativos innovadores, ajustados a cada individuo, asegurando el acompañamiento en el desarrollo de competencias socio-personales y técnico-profesionales, donde las personas sean protagonistas de su aprendizaje.

c)-Kalitatezko enplegua **sustatzea** eta pertsonak prestakuntza-ibilbide berrietan sartzeko **orientazioa** ematea.

c)-**Fomento** del empleo de calidad y orientación para la inserción en nuevos itinerarios formativos de las personas.

d)-Kalitatezko enplegua sustatzen eta mantentzen laguntzeko enpresa-sare sendo bat **kudeatzen eta harekin lankidetzan** aritzea.

d)-**Gestión y colaboración** con una red sólida de empresas dirigida a favorecer la promoción y mantenimiento de empleo de calidad.

e)-"GUNE Fundazioa"ren helburuak lortzeko balio duen **beste edozein**, betiere ezarritako lege-esparruan eta gobernu-organismoek egokitzen eta egokitzen jotzen badute.

e)-**Cualesquiera otras** que sirvan para lograr los fines de "GUNE Fundazioa", en el marco legal establecido y que los órganos de Gobierno consideren conveniente y adecuado.

4.artikulua.

Helbidea eta lurralde-eremua.

1.-"GUNE Fundazioak" Donostiako 20013-Ategorrietako Ibilbide Zaharrean izango du helbidea, 159. zenbakian.

2.-"GUNE Fundazioa"ren Patronatuak estatutuak aldatzeko hartutako erabaki baten bidez aldatu ahalko da helbide hori, eta erabaki hori Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da.

Halaber, Patronatuari ahalmena ematen zaio establezimenduen, ordezkari izan edo bulegoen egoitzak hautatzeko, kasuan kasuko fundazioaren helburuak betetzeko eginkizunean sortzen diren beharrezkoak arabera.

3.-"GUNE Fundazioak" Fundazioak Euskadiko Autonomia Erkidegoan garatuko ditu nagusiki bere jarduerak.

Artículo 4.

Domicilio y ámbito territorial.

1.-"GUNE Fundazioa" tendrá su domicilio en Calzada Vieja de Ategorrieta, número 159, de Donostia-San Sebastián.

2.-Mediante acuerdo de modificación estatutaria adoptado por el Patronato de "GUNE Fundazioa", podrá determinarse el traslado de domicilio, lo cual deberá ser inscrito en el Registro de Fundaciones.

Asimismo, se faculta al Patronato para la determinación de las sedes de los establecimientos, delegaciones u oficinas, que, según los casos, se fijen en función de las necesidades derivadas del cumplimiento de los fines fundacionales.

3.-"GUNE Fundazioa" desarrollará principalmente sus actividades en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

5.artikulua.

Onuradunak.

1.- "GUNE Fundazioaren" prestazio eta zerbitzuen onuradunak honako hauek dira:

- Zailtasun pertsonal, sozialak, intelektualak, prestakuntzakoak edo/eta lanekoak **leheneratu** behar dituzten **pertsonak**.
- Lanerako prestakuntza eta prestakuntza maila hobetzeko motibatutako beste **edozein pertsona**.

Artículo 5.

Las personas beneficiarias.

1.-Las personas beneficiarias de las prestaciones y servicios de "GUNE Fundazioa", son:

- **Personas** que necesiten **revertir situaciones** de dificultad personal, social, intelectual, formativa, y/o laboral.
- Cualquier otra **persona motivada** para mejorar su formación y capacitación laboral.

2.-Onuradunak zehazki izendatzeko, "GUNE Fundazioa"ren Patronatuak honako hauek hartuko ditu kontuan:

- a) **Fundazioaren jarduerak** onura ekarri behar die persona fisiko edo juridikoen gizatalde orokorrei. Pertsonen kolektiboa **hautatzeko irizpideek** objetiboak eta inpartzialak izan behar dute.
- b) Fundazioaren helburu nagusia ezin izango da izan prestazioak fundatzaileei edo patronoei, horien ezkontideei edo antzeko harreman afktiboa duten pertsonen edo haien lau mailarainoko ahaideei (horiek barne) ematea, ezta interes orokorreko helbururik ez duten pertsona juridiko berezituei ere.
- c) **Inork ezin izango du alegatu**, ez bakarka, ez taldean, GUNE Fundazioa"ren edo bere Patronatuaren aurrean, onuradunen gozamenerako inolako eskubiderik haiek eman aurretik, esta persona jakin batzuen esku uzteko eskubiderik ere.

3.-Onuradunak hautatzeko irizpidea, artikuluko lehenengo paragrafoan ezarritakoaren arabera onuradun izan daitezkeen pertsona guztiei prestazioak edo zerbitzuak ematea ezinezkoa den kasuetarako, eta horien ordena eta lehentasuna, honako hau izango da:

2.-Para la designación concreta de las personas beneficiarias, el Patronato de "GUNE Fundazioa" tendrá en cuenta lo siguiente:

- a) La **actividad fundacional** debe beneficiar a colectividades genéricas de personas, físicas o jurídicas. Los **criterios de selección** del colectivo de personas han de ser objetivos e imparciales.
- b) **No pueden constituir** el fin principal de la Fundación el destino de sus prestaciones a la persona/as fundadoras o a los patronos/as, a sus cónyuges o personas ligadas con análoga relación de afectividad, o a sus parientes hasta el cuatro grado inclusive, así como a personas jurídicas singularizadas que no persigan fines de interés general.
- c) **Nadie podrá alegar**, ni individual ni colectivamente, ante "GUNE Fundazioa" o su Patronato derecho alguno al goce de sus personas beneficiarias antes de que fuesen concedidos, ni imponer su atribución a personas determinadas.

3.-El criterio de selección de las personas beneficiarias, para los supuestos en los que no sea posible otorgar las prestaciones o servicios a todas las personas que puedan ser beneficiarias, de conformidad con lo establecido en el primer apartado del presente artículo, así como el orden y la prioridad de los mismos, será el siguiente:

- a) Lehenik eta behin, zailtasun pertsonaleko, sozialeko, prestakuntzako edo laneko zailtasuneko egoerak leheneratu behar dituzten pertsonak, bai eta desgaitasuneko edo/eta dibertsitate funtzionaleko egoeran dauden pertsonak ere, honako arrazoi hauengatik: zailtasun intelektualak, mugako adimena, buru-nahasmendua...
- b) Azkenik, lanerako prestakuntza eta gaikuntza hobetzeko motibazioa duten pertsonak.

- a) En primer lugar, personas que necesiten revertir situaciones de dificultad personal, social, formativa o laboral, así como personas en situación de discapacidad y/o diversidad funcional, por: dificultades intelectuales, inteligencia límite, trastorno mental...
- b) Por último, personas motivadas para mejorar su formación y capacitación laboral.

6.artikulua.

Jarduera eta funtzionamendu printzipioak.

Fundazioak printzipio hauek beteko ditu bere jardueran:

a)-**Publikotasuna eta gardentasuna.** Fundazioaren xede eta jarduerari buruzko informazio nahikoa emango du, herritarrek oro har eta behin-behineko onuradunek haien berri izan dezaten.

b)-**Inpartzialtasuna eta bereizkeriarik eza** pertsona onuradunak zehazterakoan, baita jarduerak eta prestazioak zehazterakoan ere.

c)-**Jarduteko jarraibideen sustapena.** Horretarako, jokabide-kodeak eta jardunbide egokien kodeak sortuko ditu.

d)-**Patronatuko kideen zerbitzu-espirituaren sustapena,** bai eta fundazioaren interesak norberaren interesen aldean lehenesteko espirituarena ere.

Artículo 6.

Principios de actuación y funcionamiento.

La Fundación se guiará en su actuación por los siguientes principios:

a)-**Publicidad y transparencia,** dando información suficiente de sus fines y actividades para que sean conocidos por la población en general y sus eventuales personas beneficiarias.

b)-**Imparcialidad y no discriminación** en la determinación de las personas beneficiarias, así como de sus actividades y prestaciones.

c)-**Promoción de directrices de actuación,** mediante la creación de códigos de conducta y buenas prácticas de funcionamiento.

d)-**Incentivación del espíritu de servicio** de las personas que constituyen el Patronato, así como de la priorización de los intereses de la Fundación frente a los propios o particulares.

e)-Etengabeko lankidetza leiala Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzarekin.

f)-**Ondarea eta errentak** fundazioaren xedeetarako benetan erabiltzen delako defentsa eta zaintza, Fundazioaren estatutuetan eta indarrean dagoen legedian aurreikusitakoarekin bat etorrita.

g)-Genero-berdintasuna.

e)-**Colaboración** leal y permanente con el Protectorado de Fundaciones del País Vasco.

f)-**Defensa y protección** del efectivo cumplimiento de la obligación de destinar el patrimonio y rentas de la Fundación a los fines fundacionales, de acuerdo con lo previsto en estos estatutos y en la normativa en vigor.

g)-**Igualdad** de género.

II. TITULUA.- PATRONATUA

7.artikulua. Fundazioaren Patronatua.

Patronatua fundazioaren gobernu-eta ordezkaritza-organoa da. Patronatuari egokituko zaio fundazioaren helburuak betetzea, fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak arduraz administratzea, bai eta haien errendimendua eta erabilgarritasuna segurtatzea ere.

8.artikulua. Patronatuaren osaera.

1.-"GUNE Fundazioko" Patronatuak gutxienez hiru kide izango ditu.

Patronatua osatzen duten pertsonak behartuta daude organo hori mantentzera, gutxieneko pertsona-kopuruarekin, gutxienez 3 lagunekin.

2.-Pertsona fisikoak zein juridikoak izan daitezke patronatukideak. Pertsona fisikoek jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute, eta ezin izango dute desgaituta egon kargu publikoak betetzeko.

TÍTULO II.- EL PATRONATO

Artículo 7. El Patronato de la Fundación.

El Patronato es el órgano de gobierno y representación de la Fundación. Corresponde al mismo el cumplimiento de los fines fundacionales, la administración diligente de los bienes y derechos que integran el patrimonio de la Fundación, así como el mantenimiento del rendimiento y utilidad de los mismos.

Artículo 8. Composición del Patronato.

1.-El Patronato de "GUNE Fundazioa" estará constituido por un número mínimo de tres personas.

Las personas que integren el Patronato están obligados a mantener dicho órgano con el nº de personas mínimo, que no podrá ser inferior a tres.

2.-Podrán formar parte del Patronato tanto las personas físicas como las jurídicas. Las personas físicas, deberán tener plena capacidad de obrar y no estar inhabilitadas para el ejercicio de cargos públicos.

Pertsona juridikoek izendatu beharko dituzte organo horretan haien ordezkari izango diren pertsona fisikoak.

3.-GUNE Fundazioaren Patronatuko kideen % 60, gutxienez, Fundazioko jarduneko langileek osatuko dute.

4.-Hauek izango dira "GUNE FUNDAZIOKO" patronatukideak:

- o [Presidente](#).
- o [Idazkaria](#).
- o [Diruzaina](#).

"GUNE Fundazioa"ren sorreratik hasierako Patronatua osatuko duten karguak hauek izango dira:

- [José Fco. Javier Madariaga Jalón](#).
- [Alberto Intziarte Lazkano](#).
- [Marcio Andrés Ferreira Fernandes](#).

Hasierako Patronatuko kide hauek Patronatuko gainerako kideek bezala arautuko dira, II. TITULU honetako artikuluen arabera.

[9.artikulua.](#)

[Patronatuko kideen izendapena eta kargu-uztea.](#)

1.-Fundazioaren sortzaileek izendatuko dute, eraketa-eskrituran, lehenengo Patronatua.

2.-Patronatuan pertsona berriak izendatzea, bai zabaltzeagatik eta baita ordezkatzegatik ere, gobernu-organoren egingo du, aho batez edo kideen bi herenen gutxienez, behar bezala justifikatuta, beti ere Patronatutako kideen %60a, gutxienez, "GUNE Fundazioko" langileen esku dagoela bermatuz.

Las personas jurídicas miembros del Patronato deberán designar a la persona o personas físicas que les representen en dicho órgano.

3.-Al menos un 60% de los miembros del Patronato de "GUNE Fundazioa" estará compuesto por trabajadores/as en activo de la propia Fundación.

4.-El Patronato de "GUNE Fundazioa" estará compuesto por los cargos:

- o [El/la Presidente/a](#).
- o [El/la Secretario/a](#).
- o [El/la Tesorero/a](#).

Los cargos que conformarán el Patronato inicial desde el origen de "GUNE Fundazioa", serán:

- [José Fco. Javier Madariaga Jalón](#).
- [Alberto Intziarte Lazkano](#).
- [Marcio Andrés Ferreira Fernandes](#).

Estos miembros del Patronato inicial, se registrarán del mismo modo que el resto de los integrantes del Patronato, según el articulado del presente TÍTULO II.

[Artículo 9.](#)

[Nombramiento y cese de las personas que integran el Patronato.](#)

1.-El primer Patronato será nombrado por la persona fundadora en la escritura fundacional.

2.-El nombramiento de nuevas personas en el seno del Patronato, bien sea por ampliación o por sustitución, se llevará a cabo por dicho órgano de gobierno mediante acuerdo unánime o por mayoría de al menos dos tercios de sus miembros, debidamente justificado, manteniendo siempre al menos un 60% de los miembros del Patronato en poder de los/las trabajadores/as de la propia "GUNE Fundazioa".

3.-Patronatuak hiru hilabeteko epean eman beharko dio bere kideen izendapenaren eta kargua utzi izanaren berri Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari, izendatze-edo kargu uzte- akordioak hartzen diren egunetik zenbatzen hasita.

4.-Patronatukideek espresuki onartu beharko dute beren izendapena Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 16. artikuluan aurreikusitako moduren baten arabera.

Karguari uko egiten badiote, aipatu artikulua 2. atalean aurreikusitako moduren batean egin beharko dute.

5.-Patronatukideen karguak baliogabetzea erabaki ahal izango du organo judizial eskudunak, erantzukizuneko jardunbidea abian jarri bada haien aurka legeak aurreikusitako prestasunez ez betetzeagatik.

6.-Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira gobernuko organoko kideen izendapena eta kargua utzi izana.

10.artikulua.

Patronatukideen kargu uztearen arrazoiak.

1.-Patronatukideek kasu hauetan utziko diote patronatukide izateari:

a)-Hiltzen direnean edo hil egin direla deklaritzen denean, eta pertsona juridikoa azkentzen denean.

b)-Legeak ezarritakoaren arabera, ezgaitasun-, desgaitasun- edo bateraezintasun-egoeraren batean gertatzen denean.

3.-El Patronato deberá comunicar al Registro de Fundaciones del País Vasco el nombramiento y cese de sus patronos/as en el plazo de tres meses contados desde la adopción de dichos acuerdos o desde la fecha de la renuncia.

4.-Las personas nombradas deberán aceptar expresamente el cargo mediante alguna de las formas previstas en el art. 16 de la Ley de Fundaciones del País Vasco.

La renuncia deberá cumplimentarse mediante alguna de las formas previstas en el apartado 2 de dicho artículo.

5.-La suspensión de las personas integrantes del Patronato podrá ser acordada por el órgano judicial competente, cuando se entable contra ellos la acción de responsabilidad por no desempeñar el cargo con la diligencia prevista en la Ley.

6.-El nombramiento y cese de las personas integrantes del órgano de gobierno se inscribirán en el Registro de Fundaciones del País Vasco.

Artículo 10.

Causas de cese de las personas integrantes del Patronato.

1.-El cese de las personas integrantes del Patronato de la Fundación se producirá en los siguientes supuestos:

a)-Por muerte o declaración de fallecimiento, así como por la extinción de la persona jurídica.

b)-Por incapacidad, inhabilitación o incompatibilidad, de acuerdo con lo que establezca la ley.

c)-Patronatukide izatera eramane zuten kargua betetzeari uzten diotenean.

d)-Kargua ordezkari leial batek berez behar duen arduraz betetzen ez dutenean, baldin eta ebazpen judizialez adierazten bada ez dutela hala bete.

e)-Ebazpen judizialez erantzukizun-akzioa onartzen denean.

f)-Agintaldia amaitzen zaienean, baldin eta aldi jakin baterako izendatu bazituzten.

g)-Karguari uko egiten diotenean.

h)-Aho batez edo kideen bi herenen gehiengoz, behar bezala justifikatuta.

c)-Por cese en el cargo por razón del cual fueron nombrados integrantes del Patronato.

d)-Por no desempeñar el cargo con la diligencia de un o una representante leal, si así se declara en resolución judicial.

e)-Por resolución judicial que acoja la acción de responsabilidad.

f)-Por el transcurso del periodo de su mandato, si fueron nombradas por un determinado tiempo.

g)-Por renuncia.

h)-Por acuerdo unánime o por mayoría de dos tercios de sus miembros, debidamente justificado.

11.artikulua. Patronatukideak ordeztea.

1.-Patronatukideak ordezkatzeko prozedura izendapenerako erabiltzen den bera izango da.

2.-Ezin direnean patronatukideak aipatuko eran ordeztu, Fundazioaren Legean aurreikusitako estatutu-aldaketara joko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzak ahalmena izango du Fundazioa gobernatu eta ordezkatzeko duen organoa behin-behinean, hau da, estatutuak aldatu arte, osatuko duten kideak izendatzeko.

Artículo 11. Sustitución las personas integrantes del Patronato.

1.-El procedimiento de sustitución de los patronos/as será el mismo que para el nombramiento.

2.-Cuando la sustitución no pueda llevarse a cabo de la forma señalada, se procederá a la modificación de estatutos prevista en la Ley de Fundaciones, y el Protectorado de Fundaciones del País Vasco quedará facultado para la designación de la persona o personas que integren provisionalmente el órgano de gobierno y representación de la Fundación, hasta que se produzca dicha modificación estatutaria.

3.-Uneren batean patronatukideak hiru baino gutxiago badira, karguan dauden gainerako patronatukideek, edo fundatzaileek, hala badagokio, behar adina kide izendatu ahal izango dituzte legeak eskatzen duen gutxieneko kopurura iristeko, eta 30 eguneko epea izango dute izendapen horiek Babesletzari horren berri emateko.

4.-Fundazioko patronatukideen ordezkapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

3.-Si el número de patronos/as fuese en algún momento inferior a tres, los demás miembros del Patronato con cargo en vigor, o las personas fundadoras en su caso, podrán designar a cuantos miembros sean necesarios para alcanzar el mínimo exigido por la ley, comunicando dichos nombramientos al Protectorado en el plazo de 30 días.

4.-La sustitución de los/las patronos/as se inscribirá en el Registro de Fundaciones del País Vasco.

12.artikulua. **Patronatuaren iraupena.**

1.-"GUNE Fundazioa"ren Patronatuko kide guztiek, salbuespenik gabe, bost urteko iraupena izango dute.

2.-"GUNE Fundazioa"ren Patronatuko kide guztiek, berriz hautatu ahal izango dira, iraupen bereko denboraldietarako, inolako mugarik gabe.

3.-Heriotza, ezintasuna, desgaitasuna, heriotza-adierazpena, baztertzea edo bateraezintasuna, aginte-epearen bukaera, ukoa, lekualdatzea edo gobernu-organoko kide baten ordezkatzeari nahiz kargu-uzteari edo beste edozein gorabehera dela-eta, bete gabe geratzen diren diren postuak Patronatuak beteko ditu. Kargu bat ezin izango da egon 6 hilabetetik gora bete gabe.

Artículo 12. **Duración del Patronato.**

1.-Todos los miembros del Patronato de "GUNE Fundazioa" sin excepción, tendrá una duración de carácter temporal de cinco años.

2.- Todos los miembros del Patronato de "GUNE fundazioa", podrán ser reelegidos, por periodos iguales, sin limitación alguna.

3.-Las vacantes que se produzcan por muerte, incapacidad, inhabilitación, declaración de fallecimiento, exclusión o incompatibilidad, transcurso del periodo de su mandato, renuncia, remoción o cualquier otra circunstancia que provoque la sustitución o el cese de un miembro del órgano de gobierno, se cubrirán por el Patronato, no pudiendo prolongarse la situación de vacante por un periodo mayor de 6 meses.

13.artikulua.**Patronatukide-karguaren doakotasuna.**

1.-Fundazioetako patronatukideek doan jardungo dute beren karguan. Dena den, eginkizun horiei lotuta dituzten gastuen zenbatekoa itzuli egingo zaie, justifikatuz gero.

2.-Beren eginkizunei dagozkien zerbitzuez gainera Fundazioan beste zerbitzu batzuk ematen dituzten patronatukideei ordainsari bat ematea erabaki dezake Patronatuak, salbu eta fundazioaren sortzaileek hori egitea espresuki debekatzen badute.

Erabaki hori Babesletzak baimendu egin beharko du, hiru hilabeteko epean.

Artículo 13.**Carácter gratuito del cargo de patrono o patrona.**

1.-Los/as patronos/as ejercerán su cargo gratuitamente. No obstante, podrán ser reembolsados de los gastos justificados que el desempeño de sus funciones les ocasione.

2.-El Patronato podrá establecer una retribución para los patronos o patronas que presten en la Fundación servicios distintos de los correspondientes a sus funciones como tales, salvo prohibición expresa de las personas fundadoras.

Dicho acuerdo deberá ser autorizado por el Protectorado en el plazo de tres meses.

14.artikulua.**Fundazioko presidentea.**

1.-Patronatuak presidente bat hautatuko du bere kideen artetik, eta haren ardura izango da, bere ekimenez edo gutxienez kideen herenak hala eskatuta, Patronatua biltzeko deialdia egitea, eztabaidak bideratzea eta hartzen diren erabakiak betearaztea.

2.-Patronatuko presidentea gobernu organo horren kargu gorena izango da, eta, organo horretako kide izateak berezko dituen ahalmenak izateaz gain, Fundazioa ordezkatu beharko du Patronatuaren erabakietatik eratorritako ekitaldi eta kontratu guztietan eta Fundazioaren beste organoetan, eta baita aurkezten diren bestelako auzi, espediente, eta administrazio, epai, eta judizioz kanpoko gaietan ere. Horrez gain, prokuradore eta/edo abokatuei botere orokorrak emateko ahalmena du, azaldutako xedeari buruzko auzietarako.

Artículo 14.**Presidente/a de la Fundación.**

1.-El Patronato elegirá entre sus miembros un/a Presidente/a, a quien corresponderá convocar al Patronato por propia iniciativa o a petición de una tercera parte como mínimo de sus componentes, dirigir las deliberaciones y ejecutar sus acuerdos.

2.-El/la Presidente/a del Patronato ostentará la máxima representación de dicho órgano de gobierno, correspondiéndole además de las facultades como integrante de dicho órgano, la de representar a la Fundación en todos sus actos y contratos que deriven de los acuerdos del Patronato y otros órganos de la Fundación, así como en cuantos litigios, expedientes, cuestiones administrativas, gubernativas, judiciales y extrajudiciales se presenten, estando facultado para otorgar poderes generales para pleitos a favor de Procuradores/as o Abogados/as al fin citado.

15.artikulua. Idazkaria.

Patronatuak idazkari bat izendatuko du, bere kideen artetik edo kanpoko pertsonen artetik. Idazkariaren ardura izango da Fundazioaren administrazio-lanak zuzentzea, dokumentazioa zaintzea eta Patronatuaren Akta Liburura transkribatzen diren bileren akta egitea, haiek onartuak izan eta presientearen oniritzia jaso ondoren.

16.artikulua. Diruzaina.

Patronatuak idazkari bat izendatuko du, bere kideen artetik edo kanpoko pertsonen artetik. Funtzio hauek izango ditu:

- a)-Fundazioaren funtsak **biltzea** eta **gordetzea**.
- b)-Sarreraren eta gastuen balantzea **aurkeztea** eta **sinatzea**.
- c)-Inbentarioen, Kontuen, Jarduera Planaren eta Eguneko Liburuak **eramatea**.

17.artikulua. Fundazioaren zerbitzuko langileak.

1.-Kudeaketa orokorra gerentzia bati eskatu ahalko zaio, eta haren izendapena eta kargu uztea Babesletzari jakinarazi beharko zaio. Gerenteari emandako ahalorde orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira.

Artículo 15. El/la Secretario/a.

El Patronato podrá designar, de entre sus personas integrantes o no, un/a Secretario/a que tendrá a su cargo la dirección de los trabajos administrativos de la Fundación, custodiará su documentación y levantará acta de las sesiones que se transcriban al Libro de Actas una vez aprobadas y con el visto bueno de la persona que ostente la presidencia.

Artículo 16. El/la Tesorero/a.

El Patronato podrá designar, de entre sus personas integrantes o no, un/una Tesorero/a, con las siguientes funciones:

- a)-**Recaudar** y **custodiar** los fondos de la Fundación.
- b)-**Presentación** y **firma** del balance de ingresos y gastos.
- c)-**Llevanza** de los Libros de Inventarios, Cuentas, Plan de actuación y el Libro Diario.

Artículo 17. Personal al servicio de la Fundación.

1.-El ejercicio de la gestión ordinaria podrá encomendarse a una gerencia, cuyo nombramiento y cese deberán ser comunicados al Protectorado. Los poderes generales otorgados al gerente o la gerente serán objeto de inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco.

18.artikulua.

Patronatuaren eginkizunak.

Fundazioaren gobernuari eta administrazioari dagokion guztia Patronatuaren eginkizuna izango da, eta bereziki hau guztia:

a)-Fundazioaren **orientazioa ezarri**, haren helburuak ahalik eta hobekien bete daitezen.

b)-Ekonomia eta finantza baliabide guztiak **administratu**, haien jatorria edozein dela ere.

c)-**Ontzat eman** Inbentarioa, Egoera-Balantzea, Emaizten Kontua eta aurreko ekitaldiko Memoria, bai eta aldi horretako planaren likidazioa ere.

d)-Hurrengo ekitaldiko jarduera-plana **onartu**, bai eta hura azaltzen duen memoria ere.

e)-Egoki diren barne-erregimeneko arauak **onartu**.

f)-Batzorde delegatuak **sortu**, haien batzordekideak **izendatu** eta batzorde horiek izango dituzten ahalmenak **zehaztu** eta ahalorde orokorrak edo bereziak **eman**, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera.

g)-Zuzendaritza, betearazpen eta aholkularitza-karguak **izendatu**, eta arlo teknikoan, administrazioan eta lan orokorretan behar diren gainerako langileak eta mendekoak **kontratatu**.

Artículo 18.

Funciones del Patronato.

Las funciones del Patronato se extienden a todo lo que concierne al gobierno y administración de la Fundación y, en particular, como mínimo a los siguientes extremos:

a)-**Señalar la orientación** de la Fundación para el mejor cumplimiento de sus fines.

b)-La **administración** de la totalidad de los recursos económicos y financieros cualquiera que sea el origen de los mismos.

c)-**Aprobar** el Inventario, el Balance de Situación, la Cuenta de Resultados y la Memoria del ejercicio anterior, así como la liquidación del Plan de actuación de dicho período.

d)-**Aprobar** el Plan de actuación del ejercicio siguiente así como su Memoria explicativa.

e)-**Aprobar** las normas de régimen interior convenientes.

f)-La **creación** de Comisiones Delegadas, **nombramiento** de sus miembros y **determinación** de sus facultades y **otorgar** apoderamientos generales o especiales de acuerdo con lo dispuesto en los artículos siguientes.

g)-Los **nombramientos** de los cargos directivos, ejecutivos y asesores, así como la **contratación** del resto del personal técnico, administrativo, laboral y subalterno necesario.

h)-Fundazioaren helburuei begira hobekien egokituko diren egintza eta kontratu-mota oro **formalizatu eta onartu**, zeinahi ere den haien izaera: zibila, merkataritzakoa, lan-arlokoa, administraziokoa eta abar.

i)-Erakunde eskudunen aurrean beharrezko proposamenak egin, **maila goragoko erabakia** beharko duten gaien kasuan.

j)-Enpresa, elkarte, erakunde edo partikularren partaidetza sustatu elkarlan teknikorako eta langile kualifikatuak trebatzeko programetan, funtsak emanaz eta lankidetzak hitzarmenak sinatuz.

k)-**Herentziak**, legatuak edo dohaintzak **onartu edo haiei uko egin**, Fundazioarentzat komenigarria den guztietan; hori horrela, Babesletza jakinaren gainean jarriko da.

l)-Fundazioaren estatutuak **aldatu**, fundazioaren sortzaileen borondatea hobeto betetzeko beharrezkoa bada.

h)-**Formalizar y aprobar** toda clase de actos y contratos, sean de índole civil, mercantil, laboral, administrativo o de cualquier otra clase, que la mejor realización de los fines de la Fundación requiera.

i)-**Elevar** las propuestas que procedan a los organismos competentes para las cuestiones en que deba recaer acuerdo superior.

j)-**Promover** la participación de empresas, entidades, organismos, o particulares en programas de cooperación técnica y de formación de personal cualificado, mediante la aportación de fondos y convenios de colaboración.

k)-**Aceptar o repudiar herencias**, legados o donaciones siempre que lo consideren conveniente para la Fundación, poniéndolo en conocimiento del Protectorado.

l)-**Modificar** los estatutos fundacionales, si fuese necesario para el mejor cumplimiento de la voluntad de las personas fundadoras.

19. artikulua. Ahalmenak eskuordetzea eta ahalordeak ematea.

1.-Patronatuak bere ahalmenak eskuordetu ahalko ditu bere kideren batengan. Ezin izango da, inola ere, eskuordetu gai hauek erabakitzen dituzten akordioak:

a)-Urteko kontuen **onespena**.

b)-Jarduera-planaren **onespena**.

Artículo 19. Delegación de facultades y apoderamientos.

1.-El Patronato podrá delegar sus facultades en alguna de las personas que lo integran. No podrán delegarse, en ningún caso, la adopción de los acuerdos relativos a:

a)-La **aprobación** de las cuentas anuales.

b)-La **aprobación** del plan de actuación.

c)-Estatutuen **aldaketa**.

d)-**Fundazioaren** bat-egitea, bereiztea, eraldatzea, azkentzea eta likidatzea.

e)-Beste pertsona juridiko baten **eratzegintzak**, ez badaude erabat lotuta helburuei.

f)-Beste pertsona juridiko batzuetako partaidetzak **eskuratzeko edo saltzeko** ekintzak, baldin eta partaidetza horien zenbatekoa fundazioaren aktiboaren % 20 baino gehiago bada.

